

Une exposition de Thomas Loyatho
Thomas Loyathoren erakusketa

itzal herria

#2

Le pays de l'ombre



20.10
> **01.12**

Ospitalea

Centre Départemental d'Éducation au Patrimoine
Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa

Irissarry - Irisarri



Ospitalea

Centre Départemental d'Éducation au Patrimoine
Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa



PLUS D'ÉMOTION,
PLUS D'OUVERTURE
CULTURE

Aurkibidea

Thomas Loyatho artistak bere lana aurkezten du Ospitaleko 2023ko azken erakusketaren kari	3
Proiektu deialdi bat artista hautatzeko asmoz.....	3
Itzal Herria #2, Le pays de l'ombre, Thomas Loyathoren erakusketa	3
Euskal herri erdian kokatua, Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa, artea zabaltzeko toki paregabea	4
Thomas Loyatho, diziplina askotako artista	5
Itzal Herria #2, le Pays de l'ombre, Thomas Loyathoren erakusketa	6
Materia : bitxikerien kabinetea	6
Natura eta kultura artean : mitologiako pertsonaiak	7
Giulia Grossmanen <i>Pasaia</i> labur metraiaren proiektzioa	7
Aktibitateak & Animazioak	8
ESTREINALDIA.....	8
BISITA IRUZKINDUAK	8
TOPAKETAK, HITZALDIAK.....	8
.....	9
IKUSGARRIA	9
Argibideak.....	10

Thomas Loyatho artistak bere lana aurkezten du Ospitaleko 2023ko azken erakusketaren kari

Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko zerbitzua dena, du helburu gisa Euskal herriko ondare kulturala, historikoa eta etnologikoa ezagutaraztea eta hedatzea. 2023 urteko azken erakusketaren kari, Ospitaleak Euskal herriko ondareari buruz lanean ari den artista bat ohoratu nahi izan du.

Proiektu deialdi bat artista hautatzeko asmoz

2023ko ekainean, arte bisualetan ari diren artistei zuzendutako proiektu deialdi bat abiatu zuen Departamenduak Ospitaleko erakusketa gela miresgarrian beren lana aurkezteko helburuz. 5 artista hautatuak izan ziren Departamenduko Kultur saileko profesionalak eta tokiko hautetsiz osatutako epaimahai batekin elkarriketa ukaiteko. Trukaketa horien ondotik, « Artea eta ondarea » proiektu deialdiaren lehen edizio honentzat, Thomas Loyatho artista plastikaria da hautatua izan. Natura ondareaz, arbasoen erritu tradizionalen berirakurketaz eta materiari lotutako lanaz osatu duen proiektu artistikoak epaimahaia liluratu du.



Basajauna-ren mozorroa Thomas Loyathoren tailerran ©Photo Matiu

Itzal Herria #2, Le pays de l'ombre, Thomas Loyathoren erakusketa

Thomas Loyathok materia bere desmartxa artistikoaren eta sorkuntzaren erdian kokatzen du. Hurbileko ingurumenean hartzen ditu ekaiak (aihenak, zura, azalak, belarra, artilea, hezurra, lumak, behi kaka, hautsak eta gisua...), eta kalitate plastikoak badituzte (formak, koloreak, testurak, usainak), artistari sortzeko sekulako ahalmenak eskaintzen dizkiote. Hurbileko ingurumenak inspiraturik, bere proiektuak ohidura eta praktika tradizionaletan oinarritzen dira.

Bere *Itzal Herria#2* erakusketan, Hartza eta Basajaun figurak bitxikerien kabinete batekin elkarrekin bizi dira eta kabinete horretan, elementu bakoitzak artistaren esperimentazio baita arkeologia bilketak erakusten ditu.

“Itzal Herria” hori fonetikoki “Euskal Herriari” hurbil da; intimoaren lekua da, kukutzeko lekua (maska baten gibelean). Askatasun eta sorkuntza lekua izateko promesa da, non huts egin baitaiteke, entseatu, esperimentatu.

Euskal herri erdian kokatua,
Departamenduko Ondare Hezkuntzarako
Zentroa, artea zabaltzeko toki paregabea

Ospitalea DOHZ-k Euskal herriko ondarearen balioztatzeko eta transmititzeko helburua du, izan dadin ondare materiala, immateriala edo naturala.

Ospitaleko lan taldeak asmatzen eta ekoizten dituen erakusketa eta animazioen kari, ondarea argitan ezarria da molde zientifiko baten bidez: historikoa, antropologikoa, soziologikoa ...



CDEP Ospitalea ©Ariane Duplaceau

Eskaintza osatzeko, DOHZ-k nahi izan du artistei hel egin berekin ondareari buruzko ikusmoldeaz trukatzeko xedez.

Sorkuntza artistikoak ondarea aldarazten du, bizirik eta gaurkotua bilakaraziz. Artistek gaiaz beren irakurketa pertsonala eskaintzen dute; estetikoa, poetikoa, narrazioari edo pentsamoldeari lotutakoa ... Arteak publikoaren sentsibilitatea pizten du, haren curiositatea akulatzen, haren irudimena bultzatzen eta artistaren unibertsoan bidaiatzera gonbidatzen. **Orduan, ondarearen irakurketak beste itxura bat hartzen du, arrunt subjektiboa eta berezia bilakatzen da.**

Ospitalean horrelako proiektu artistikoa aterbetzeak arte presentzia bat segurtatzen du lurraldean zehar eta Ospitaleak bere misioa betetzen du hurbileko kultur egitura gisa. Ospitaleko lan taldeek laguntzen zaituzte artista horren ezagutzera, erakusketako bitartekaritza tresnei baita lotutako programazioari esker (bisita iruzkinduak, tailerrak, topaketak...).



Ospitalea Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroko animazioak ©Ariane Duplaceau

Thomas Loyatho, diziplina askotako artista

Thomas Loyatho artista plastikaria 1984an sortu zen Hazparnen eta Bastidan lan egiten du.

Haur zelarik denbora anitz iragaten zuen aitaren tailerran; Beñat Loyatho margolaria zen bere aita, paisaiak eta baserrialdea margotzen zituen. Harekin behako artistikoa eta eskulangintzako gustua garatu zituen. Baserrialdeko eremuen eta basa-faunaren kudeatzeko formakuntza egin ondoan, Thomas **mendi-gidari** gisa ari izan da. Hazparneko joaldunen taldeko kidea da 2000. hamarkadaz geroztik.



Thomas Loyatho bere tailerran Bastidan ©Photo Matiu

Bere **esperimentazioak diziplina anitzekoak** dira eta **materiari lotuak**. Ekai soilak edo xumeak erabiltzeak ez du teknologiarik eskatzen ; baina alderantziz sinpletasuna adiarazten du eta artistari sortzeko sekulako ahalmenak eskaintzen dizkiote.

Denboran zehar molde batzuetan baita toki desberdinetan kokatuak izan diren ekai horiek puntu amankomuna badute : denek uste baino erran nahi zabalagoa dute.

Gauzak argitara ateratzea bere desmartxaren parte da, eta haren ustez esperimentazio bilketa horiek estetika bat badute, aurkezpen plastiko baten gaia direnak.

« Pentsamendu batzuk ez dute ihes egiten erran eta adierazi behar diren unean edo oihal batean agertzekotan. Baina, pentsamendu horietako gehienak abstraktuak eta arinak gelditzen dira. Pentsamendu horiek irudikatzeari aurkako ekaiak dira, hitzeen moldeetan ezin direnak sartu. Hemen erran nahi digute deus errateko dutenentzat direla ».

Itzal Herria #2, le Pays de l'ombre, Thomas Loyathoren erakusketa

“Itzal Herria” hitzez hitz Pays de l'ombre, mendiko leku hertsia bat da non argia gutxi agertzen den. Hitz hori “Euskal Herriari” hurbil da. Euskal Herria argitan ezarria da usaiako klaxeen bidez. Itzal Herria haren itzalean aurkitzen da, publiko zabalatik gordea.

Thomas-ren iritziz, itzala intimoaren lekua da, maska edo mozturro baten gibelean atzematen ahal dena; hor nor bera izaten ahal da edo alderantziz norbaiten parte egin, bere nortasuna azaldu gabe.

Materia : bitxikerien kabinetea

Thomas Loyathok materia bere desmartxa artistikoaren eta sorkuntzaren erdian kokatzen du.

Hurbileko ingurumenean hartzen ditu ekaiak (aihenak, zura, azalak, belarra, artilea, hezurra, lumak, behi kaka, hautsak eta gisua...), eta kalitate plastikoak badituzte (formak, koloreak, testurak, usainak), artistari sortzeko sekulako ahalmenak eskaintzen dizkiote.

Bitxikerien kabinetean ekai landugabeak badira baita ere artistak landu prototipoak eta objektuak. Leku horretan bisitaria artista plastikoaren mundu estetikoan murgilduko da, bere lantegian balitz bezala. Galdekatze hauek ukanen ditu: Zertako ekai bat hautatu eta ez beste bat? Zer gustatzen zait forma horretan eta bere ahalmen estetikoetan? Zer fabrika nezake materia horrekin? Eta nola?

Bere desmartxa artistikoan, Thomas Loyathok sorkuntzaren etapa desberdinei buruz gogoetak eginarazten ditu. Materialatik objekturako transformazioan (suharritik ganibetara adibidez) lehen gizonek ukan zituzten pentsamoldeak transmititu nahi ditu bere obren bidez. Horrela, arkeologiari buruzko lanetaz inspiratzen da. Bestalde, biltzen dituen landareen balioaz gogoetak eginarazten du bere lanak. Izan ere, berarekin, aberastasuna hitza aldatzen da : beren nasaitasuna naturan azpimarratuz baliosak bilakarazten ditu.



Thomas Loyathoren bitxikerien kabinetean aurkeztutako materia berezitasun batzu © Photo Matiu

Natura eta kultura artean : pertsonaia mitologikoak

Erakusketa honetan Thomas Loyathok euskal mitologiako bi pertsonaia buruz buru ezartzen ditu: **Hartza**, ihauterietako pertsonaia enblematikoa, eta **basajauna**.

Pertsonaia horiek bitxikerien kabinetea osatzen duten ekai berekin sortua dira, naturan bilduak eta jantziak dira ihauterietako bestetan.

Elkarrekin, **natura / kultura dialektikaren** sinbolo dira: hartzak jendeen basa- eta animalia-aldea irudikatzen du, eta Basajauna jendeen eta naturaren arteko juntan da. Hartza Europako eta Euskal Herriko ihauterietako pertsonaia klasikoa da, baina Basajauna ez da ohikoa. Mozorro horien bidez, jendeen eta naturaren arteko harremanak galdekatzen ditu. Mitologiak josi errituak berpizten ditu, zeinen jatorria ezezaguna zaigun. Ameskeriak dakartza eta gaurko Euskal Herrian lehengo praktikek duten erakarpenaren lekuko da.



Thomas Loyathok sortutako Hartza-ren mozorroa eta Euskal herriko ihauterietan erabilia © Photo Matiu

Giulia Grossmanen *Pasaia* labur metraiaren proiektzioa

Bi nozio horiek ere abiarazi dute « Pasaia » filma Giulia Grossman film egileak ekoiztua 2022an eta Thomas Loyathok erakusketan aurkeztzen duena bere lanari ihardesteko asmoz.

Film horren bidez, film egileak ezagutarazten digu hartzaren pertsonaia mitikoa eta Altsasuko (Nafarroa) ihauterietako errituen tratamenduak. Filmaren protagonista gisa, Thomas Loyathok bere hartza mozorroa jantzen du baita joaldun batena.

Film miaketa hori esker, oso urrun den mundu batean murgilduak gara non euskal mitologia paisai aldaezinetan sartzen den eta ohidurek eta sinesmenek ihauterietako errituarekin bat egiten duten, denboraren zikloaren sinbolo bezala.



Pasaia filmaren afitxa, erakusketan erakutsia, 23''

Aktibitateak & Animazioak

Animazio programazio bat proposatu da erakusketa ezagutarazteko asmoz.

ESTREINALDIA

Urriaren 20ean ostiralez, 18:30tan erakusketaren estreinaldia, Thomas Loyatho artistarekin eta Giulia Grossman film egilearekin.

BISITA IRUZKINDUAK

Erakusketaren eta eraikinaren **bisita bateratua**,
ondare bitartekari batek lagundurik
Urriaren 27an, azaroaren 3an eta abendoaren
1ean, ostiralez
10:00tan
Iraupena : 1:30
Prezioa : 3€ (urrik 8 urtez petik)



Bisita bateratua Ospitalean © ArianeDuplaceau

TOPAKETAK, HITZALDIAK

- « **Materia : arkeologoaren eta plastikariaren begirada gurutzatuak** »

Thomas Loyatho plastikaria eta Pablo Marticorena arkeologoa

Abendoaren 1ean, ostiralez, 19:00tan

- **Gizartea eta populazioa Nafarroa Beherean (Erdi Arotik Aro Modernora)**

Bixente Hirigaray, historialaria eta Mehaka Baxe Nafarroko historia buruzko interpretazio zentroaren animatzailea

Azaroaren 17an, ostiralez, 19:00tan (euskaraz, bat bateko itzulpenarekin)

OMIASAINDUKO OPORRETAN

- **Escape game « Ospitalea »**

Ihes egiteko, asmakari andana bati aterabidea aurkitu beharko duzu, kodigo sekretuak asmatu eta ezohiko objektu eskuetan erabili.

8 pertsoneri mugatua .

8 urtez goiti. Izen ematea beharrezkoa.

Urriaren 24 an eta 31an, asteartez

10:30 tan, 14:00tan & 16:00 tan

Iraupena: 1:30. Prezioa: 5€





Tailerra : euskal mitologia

Euskal mitologiako ipuinak eta leiendak, eta ondotik tailer artistiko bat
5 urtetik goiti, izen ematea beharrezkoa
Urriaren 25an, asteazkenez, 10:00etan (frantsesez) eta 15:00etan (euskaraz)
Iraupena: 2:00. Prezioa: 3€



*Mitologia tailerra eta iguzkilore baten egitea ©
ArianeDuplaceau*

IKUSGARRIA

Errateko denbora, Musika irakurketak Iholdiko eta Kanboko EHPAD-eko egoiliarrek emana,
Sur un fil elkartarekin partaide.

Azaroaren 25an, larunbatez, 15:00 etan



Errateko denbora ©Kittof Prud'hommes

Argibideak

Sartze libroa eta urririk

Astelehenetik larunbata arte : 10:00 - 12:30 eta 13:30 - 17:30

Abendotik martxora hetsia

Gure atzemateko :

Ospitalea

Departamenduko Ondare Hezkuntzarako Zentroa

Plaza, 64780 Irissarri

05 59 37 97 20

ospitalea@le64.fr

www.ospitalea.fr



Gure segitzeko :



Facebook : Département des Pyrénées-Atlantiques



Twitter : @departement64



Instagram : @departement64

Prentsa kontaktua :

Anna Ruiz-Delval, Ospitaleko arduraduna. Tel : 06.84.32.03.85 edo mailez anna.ruiz-delval@le64.fr